

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

2287

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 29koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita «Gernikako Txokiloako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2025eko apirilaren 2ko Ebazpenaren bidez, «Gernikako Txokiloako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektua» onetsi zen. Ebazpena 2025eko apirilaren 25ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (78. zk.).

Euskal Trenbide Sarearen Gernikako udalerrian dagoen Amorebieta-Bermeo lineako eta 12/792 kilometro-puntuko Txokiloa trenbide-pasagunea P (pasiboa) motako trenbide-pasagunea da. Ondoko nekazaritza-eremuetara sartzeko pasagunea da.

Euskal Trenbide Sarearen Amorebieta-Bermeo linea ustiatzeko baldintzak eta segurtasuna hobetzeko, Txokiloako trenbide-pasagunea kentzea planteatu da.

Proiektu honen helburua da trenbide-pasagune hori kentzeko behar diren jarduketak jasotzea.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzati-zen zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espedituentz izapidetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko deklarazioa, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitazeko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitazeko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan dituzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jendurrean jartzea «Gernikako Txokiloako trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo

hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara zuzendu beharko dira, idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 – Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Gernikako udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 29a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

ERANSKINA

GERNIKAKO UDALERRIAN

Finka- zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin-mota (m ²)			Izaera
			Erabateko jabetza	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
001	7-12.	María Tere Olaeta Torrezuri	0	261	261	Laborantza
001 CULT	7-12.	Fermín Urizar Uribarri	0	0	261	Laborantza
002	7-29.	Pedro María Aguirre Foruria	0	115	115	Laborantza
003	7-28.	María Tere Olaeta Torrezuri	0	137	137	Laborantza
003 CULT	7-28.	Fermín Urizar Uribarri	0	0	137	Laborantza
004	7-40.	Ondare Zerbitzua Ogasun eta Finantza Saila Bizkaiko Foru Aldundia	0	14	14	Laborantza